

EUSKAL MEZA, 2025 AZAROAK 2/NOVEMBER 2, 2025
URTEAREN ZEHAR IGANDEA XXXI-SUNDAY IN ORDINARY TIME (C)
HILDAKO FEDEDUN GUZIEN OROIPENA (ANIMA GUZIAK)/THE
COMMEMORATION OF ALL THE FAITHFUL DEPARTED (ALL SOULS)

MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS

HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG

Kanta dezagun denok

Let us all sing

**Kanta dezagun denok, kanta egun alaia,
Kristo piztu da-eta, kanta aleluia.**

**Let us all sing, sing a joyful song,
Christ in Risen, sing Alleluia.**

Poztu famili, poztu gurasoak
poztu biziak, poztu hildakoak

Families, exult, parents exult,
Exult the living, exult the death also.

Poztu herriak, poztu herritarrek;
Poztu eliza, poztu eliztarrek.

Exult all cities and the citizens,
Exult the church, and all the churchgoers.

HASIERAKO OHIKUNEAK-Introductory Rites

† Aitaren, eta +Semearen, eta Izpiritu Sainduaren
izenean.

⊗ Amen.

AGURRA

† Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren
maitasuna, eta Izpiritu Sainduaren batasuna izan bedi
zuekin.

⊗ Eta zure izpirituarekin.

† In the Name of the Father, + and of the Son,
and of the Holy Spirit.

⊗ **Amen.**

Greeting

† The grace of our Lord Jesus Christ, and the
love of God, and the communion of the Holy
Spirit
be with you all.

⊗ **And with your spirit.**

DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE

† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak,
misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitezen.

† Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia:
erruki, Jauna.

⊗ Erruki, Jauna.

† Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo,
erruki.

⊗ Kristo, erruki.

† Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren
eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna.

⊗ Erruki, Jauna.

† Brothers and sisters let us acknowledge our sins,
and so prepare ourselves to celebrate the sacred
mysteries.

† You raise the dead to life in the Spirit:
Lord, have mercy.

⊗ **Lord, have mercy.**

† You bring pardon and peace to the sinner:
Christ, have mercy.

⊗ **Christ, have mercy.**

† You bring light to those in darkness:
Lord, have mercy.

⊗ **Lord, have mercy.**

† Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

☉ Amen.

† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life.

☉ Amen.

AINZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST

Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizonei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guztialduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan. Amen.

Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father. Amen.

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

† Egin dezagun otoitz

+ Entzun, Jauna, bihotz onez gure eskariak, eta hilen artetik berpiztu zenuen Zure Semearengan gure fedea sakontzearekin batean, hildako gure senideak ere berpiztuko direlaren itxaropena ere areagotu dadila guregan.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

☉ Amen.

† Let us Pray

Listen kindly to our prayers, O Lord, and, as our faith in your Son, raised from the dead, is deepened, so may our hope of resurrection for your departed servants also find new strength.

Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, God, for ever and ever.

☉ Amen.

HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING

Jakinduriaren liburua/ Wisdom 3:1-9

Jakinduriaren liburutik

1 Zintzoen bizitza Jainkoaren esku dago, ez ditu inolako oinazek harrapatuko. **2** Zentzugabeen ustetan, hilda zeuden behin betiko: horiek hemendik irtetea berorien zoritxartzat jo zuten **3** eta guregandik urruntzea erabateko hondamenditzat; baina zintzoak bakean daude egon. **4** Gizakien iritziz, zigorra jasan zuten, baina haiek hilezkortasuna espero zuten bete-betean.

From the Book of Wisdom

The souls of the just are in the hand of God, and no torment shall touch them. They seemed, in the view of the foolish, to be dead; and their passing away was thought an affliction and their going forth from us, utter destruction. But they are in peace. For if before men, indeed, they be punished, yet is their

5 Pixka bat zigortuak izan ondoren, sari handia izango dute gero; Jainkoak probatu egin zituen eta beretzat duin aurkitu. 6 Urrea arragoan bezala garbitu zituen, eta erre-oparia bezala onartu. 7 Kontuak hartzeko garaian, distiratsu agertuko dira, lastotan arin zabaltzen den txinparta bezala izango. 8 Nazioak gobernatuko dituzte, herriak menderatuko, eta Jauna izango dute errege betiko. 9 Uste ona Jainkoarengan dutenek ulertuko dute egia, haren maitasunari leial zaizkionak berarekin elkarturik jarraituko; izan ere, onginahia eta errukia baititu bere fededunentzat eta ardura du bere aukeratue.

□ **Jaunak errana!**

☉ Eskerrak zuri Jauna!

hope full of immortality; chastised a little, they shall be greatly blessed, because God tried them and found them worthy of himself. As gold in the furnace, he proved them, and as sacrificial offerings he took them to himself. In the time of their visitation they shall shine, and shall dart about as sparks through stubble; they shall judge nations and rule over peoples, and the LORD shall be their King forever. Those who trust in him shall understand truth, and the faithful shall abide with him in love: because grace and mercy are with his holy ones, and his care is with his elect.

□ **The Word of the Lord!**

☉ Thanks be to God!

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 23 (22): 1-3A, 3B-4, 5, 6

R. Jauna dut artzain: ez zait ezeren beharrean.

Jauna dut artzain: ez zait ezer falta.
Larre guritan etzanarazten nau,
ur baretara eramaten,
eta indarrak berritzen. **R.**

Bide egokitik narama,
leiala delako .
Ibar beltz-ilunetan banabil ere,
ez dut inolako gaitzen beldurrik,
zu nirekin baitzaude:
zure artzain-makilak
lasaitzen nau. **R.**

Bai, zorionak eta leialtasunak inguratuko naute
bizitzako egun guztietan;
Jaunaren etxean biziko naiz
amaigabeko egunetan! **R.**

R The Lord is my shepherd; there is nothing I shall want.

The LORD is my shepherd; I shall not want.
In verdant pastures he gives me repose;
beside restful waters he leads me;
he refreshes my soul. **R.**

He guides me in right paths
for his name's sake.
Even though I walk in the dark valley
I fear no evil; for you are at my side
with your rod and your staff
that give me courage. **R.**

Only goodness and kindness follow me
all the days of my life;
and I shall dwell in the house of the LORD
for years to come. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING Erromatarrei Epistola/ Romans 6:3-9

Erromatarrei egindako Epistolatik

Senideok:

From the Letter to the Romans

Brothers and sisters:

3 Ez al dakizue, bada, bataioaz Jesu Kristori lotuak izan garenok, haren heriotzari izan garela lotuak? 4 Bataioaren bidez berarekin lurperatuak izan garenok, haren heriotzari lotuak gaude, Aitaren ahalmenaz Kristo hildakoen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun. 5 Berarena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, hari itsatsiak izango gara harena bezalako piztueran ere. 6 Badakigu, gure izaera zaharra Kristorekin gurutziltzatua izan zela, bekatzeko gure izaera ezereztua geldi zedin, eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez gintezan. 7 Izan ere, norbait hilez gero, bekatutik libre gelditzen da. 8 Kristorekin hil bagara, sinesten dugu bizi ere berarekin biziko garela. 9 Badakigu Kristo, behin hildakoen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko: herioak ez du harengan aginterik.

Are you unaware that we who were baptized into Christ Jesus were baptized into his death? We were indeed buried with him through baptism into death, so that, just as Christ was raised from the dead by the glory of the Father, we too might live in newness of life. For if we have grown into union with him through a death like his, we shall also be united with him in the resurrection. We know that our old self was crucified with him, so that our sinful body might be done away with, that we might no longer be in slavery to sin. For a dead person has been absolved from sin. If, then, we have died with Christ, we believe that we shall also live with him. We know that Christ, raised from the dead, dies no more; death no longer has power over him.

□ **Jaunak errana!**

◎ Eskerrak zuri Jauna!

□ **The Word of the Lord!**

◎ Thanks be to God!

ALELUIA-ALLELUIA

R. Aleluia, aleluia.

Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoen erreinua.

R. Aleluia, aleluia.

R. Alleluia, alleluia.

Come, you who are blessed of my Father, inherit the kingdom prepared for you from the foundation of the world.

R. Alleluia, alleluia.

EBANJELIOA-GOSPEL

† **Jauna zuekin.**

◎ Eta zure espirituarekin.

† **Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik**

◎ Aintza Zuri, Jauna.

† **Jaunak esana.**

◎ Eskerrak Zuri, Jauna

† The Lord be with you

◎ **And with your spirit**

† A Reading from the Holy Gospel according to **N**

◎ **Glory to you, O Lord.**

† The Gospel of the Lord.

◎ **Praise to you, Lord Jesus Christ.**

Ebanjelioa San Joanen Liburutik/John 6:37-40

Honela mintzatu zitzaion Jesus jendetzari 37 Aitak niri ematen dizkidan guztiak niregana hurbilduko dira eta niregana hurbiltzen denik ez dut inola ere kanpora botako, 38 ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali nauenaren nahia egitera baizik.

Jesus said to the crowds: "Everything that the Father gives me will come to me, and I will not reject anyone who comes to me, because I came down from heaven not to do my own will but the will of the one who sent me. And this is the will of the one who sent me, that I

39 Eta haxe da bidali nauenaren nahia: berak eman dizkidan guztietatik, ez dezadala bat ere gal, baizik eta piztu ditzadala azken egunean. 40 Haxe da nire Aitak nahi duena: Semea ikus eta harengan sinets dezanak betiko bizia izan dezala; eta neuk piztuko dut azken egunean.

□ **Jaunak errana!**

☉ Eskerrak Zuri, Jauna!

should not lose anything of what he gave me, but that I should raise it on the last day. For this is the will of my Father, that everyone who sees the Son and believes in him may have eternal life, and I shall raise him on the last day.”

□ **The Word of the Lord!**

☉ Praise to you, Lord Jesus Christ!

HOMILIA-HOMILY

SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

APOSTOLUEN AITORMENA

☉ **Sinisten dut, sinisten dut!**

† **Sinisten dut Jaungoiko Aita ahalguztiduna,** zeru-lurren egilea. Sinisten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean iltzatua, hila eta hobiratua izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarrikik dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

☉ **Sinisten dut, sinisten dut!**

Sinisten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza. ☉ **Amen.**

☉ **Sinisten dut, sinisten dut!**

APOSTLES' CREED

† **I believe in God, the Father almighty,**

† ☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead. I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.

☉ **Amen.**

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: Death has been conquered in Jesus Christ. As the People of Life, we therefore intercede confidently for the living and the dead.

1. Jesus Christ is Risen! May the Church proclaim his victory over death with confidence, fidelity, and joy. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
2. Christ has robbed death of its power! May he free the human family from despair and from the fear of the grave. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
3. The eternal banquet of life has been prepared! May those who lack enough of this world's goods have their needs provided through the commitment of God's people. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
4. Our citizenship is in heaven. May we also exercise our earthly citizenship faithfully as we vote in this week's national elections. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

5. Mercy triumphs over judgment! May all children who have died by miscarriage, stillbirth, or abortion be carried to the joys of heaven, **we pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
6. The souls of the just are in the hand of God. May all who have died in the peace of Christ find eternal resurrection, **we pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
7. God wants all to be saved. May those who have died without knowing Christ be taken into the arms of his mercy, **we pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

+ Father, You have freed the human family From the dominion of the grave. As you answer our prayers, Fill us with joy and with the hope of life eternal. We ask this through Christ our Risen Lord.

R/. Amen.

EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY

OPARI ESKAINTZA-OFFERTORY

Hartu Aita Zerukoa

Receive, Heavenly Father

**Hartu Aita, zerukoa,
Jainko ta Jaun betikoa,
Hartu gure eskaintza:
Ogia eta ardoa.**

**Receive Heavenly Father,
Eternal Lord and God,
Receive our offering:
Bread and wine.**

Hona ogia, guziz garbia,
Arren, denori, eman grazia;
Eta hileri, zure bizia.

Here is the bread, immaculate,
We pray, you give you grace to all;
To the dead your live.

Hona ardoa, zerurakoa
Heldu bekigu honen gozoa,
Salba dadila mundu osoa.

Here is the heavenly wine
We may receive its taste,
The whole world be saved.

† **Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa:**
zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri
dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren
lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.

☉ **Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.**

† **Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa:**
zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri
dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta
gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko
zorionaren edari.

☉ **Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.**

† **Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean,**
Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.

† Blessed are you, Lord God of all creation, for
through your goodness we have received the bread
we offer you: fruit of the earth and work of human
hands, it will become for us the bread of life.

☉ **Blessed be God for ever.**

† Blessed are you, Lord God of all creation, for
through your goodness we have received the wine we
offer you: fruit of the vine and work of human hands;
it will become our spiritual drink.

☉ **Blessed be God for ever.**

† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and
yours may be acceptable to God, the almighty Father.

☉ Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.

☉ **May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.**

OPARIGAIEN GAINEN OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

† Betiko zorionaren aintza begirunez ospatzen dugunarekin batean, onar itzazu Jauna gure eskaintzak; gure hildako senide guziak, zure Semearen piztueran bat eginik direla sinesten dugunez gero, eraman gaitzazu gu ere betiereko aintzara. Zure Seme Jesukristoren bitartez.

☉ Amen.

† As we venerate the perpetual glory Look favorably on our offerings, O Lord, so that your departed servants may be taken up into glory with your Son, in whose great mystery of love we are all united. Who lives and reigns for ever and ever.

☉ Amen.

EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

† **Jauna zuekin**

☉ Eta zure espirituarekin.

† **Gora bihotzak.**

☉ Jaunagan dauzkagu.

† **Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.**

☉ Egoki da eta zuzen.

† Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Bera guztien alde hil zen, gu guztiok betirako hil ez gaitezen; areago oraindik, bere bizia eman zuen, gu guztiok betiko Zuretzat bizi gaitezen.

Horregatik, aingeru ta santu guztiakin batean, beti ta beti abesten dizugu goratzarre hau:

☉ **Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!**

† The Lord be with you.

☉ **And with your spirit.**

† Lift up your hearts.

☉ **We lift them up to the Lord.**

† Let us give thanks to the Lord our God.

☉ **It is right and just.**

† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord.

For as one alone he accepted death, so that we might all escape from dying; as one man he chose to die, so that in your sight we all might live for ever. And so, with the company of Angels and Saints, we sing the hymn of your praise, as without end we acclaim:

☉ **Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.**

EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz + eta odol guretzat egin daitezen.

† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the

† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK HONTATIK:
HAU NIRE GORPUTZA DA-TA, ZUENTZAT
EMANGO DENA**

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN KALIZA
DA-TA, ITUN BERRI ETA BETIKOAREN
ODOLA, ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.
EGIZUE HAU NIRE OROIGARRI**

† Hau da sinesmenaren misterioa.

☉ Ogi ardo hauek hartzean, zure heriotza dugu aitortzen, Zu, Jauna, etorri artean!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratuz, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

=====

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

=====

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

dewfall, so that they may become for us the Body + and Blood of our Lord, Jesus Christ.

† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT,
FOR THIS IS MY BODY, WHICH WILL BE
GIVEN UP FOR YOU**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK
FROM IT, FOR THIS IS THE CHALICE OF
MY BLOOD, THE BLOOD OF THE NEW AND
ETERNAL COVENANT, WHICH WILL BE
POURED OUT FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME**

† The mystery of faith.

☉ We proclaim your death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

=====

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

=====

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean gorets zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† **Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan**
⊙ Amen.

who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, Joseph her blessed spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† **Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.**
⊙ Amen.

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

† **Salbatzaileak manatu eta erakutsiari jarraikiz, beldur gabe erran dezagun:**

†⊙ Gure Aita, zeruetan zirena: saindu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.

Emaguzu gaur egun huntako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunaz geroz; ez utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.

† **Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guzietarik; emaguzu bakea gure egunetan; zure urrikalmenduari esker, bekatutik garbi bizi gaitezen eta hersturetan sendo, betiko zorionaren esperantzan, Jesu Kristo gure salbatzailea noiz etorriko den zain gaudela**

⊙ Zurea duzu erregetza, zureak ospe-ta indarra orai eta beti.

† **At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:**

†⊙ **Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.**

Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation but deliver us from evil.

† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.

⊙ **For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.**

PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

† **Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: "Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen." Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiuzu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.**

⊙ Amen.

† **Jaunaren bakea beti zuekin.**

⊙ **Eta zure espirituarekin.**

† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.

⊙ Amen.

† The peace of the Lord be with you always.

⊙ **And with your spirit.**

† Let us offer each other the sign of peace.

† Emaiozue bakea elkarri.

☉ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaiguzu bakea.

† Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!

☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.

† Kristoren Gorputza.

☉ Amen.

☉ Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.

Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.

Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.

† Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.

☉ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.

† The body of Christ.

☉ Amen.

JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION HYMN

Sinesten dut Jauna

Sinesten dut, Jauna, sinesten dut
Bihotz barreanean gorderik zaitut;
Nahigabeen ere hauxe esango dizut:
Sinesten dut, Jauna, sinesten dut.

Itxaro dut, Jauna, itxaro dut
Zugan uste dunik, usten ez duzu;
Poz ta atsekabeen, dei egingo dizut:
Itxaro dut, Jauna, itxaro dut.

Maite zaitut, Jauna, maite zaitut
Naizen oso-oso zuri damaizut;
Zurekin zerura bizitzera nahi dut:
Maite zaitut, Jauna, maite zaitut.

Nearer, my God, to thee

Nearer, my God, to thee, nearer to thee!
E'en though it be a cross that raiseth me,
still all my song shall be, nearer, my God, to thee;
nearer, my God, to thee, nearer to thee!

Though like the wanderer, the sun gone down,
darkness be over me, my rest a stone;
yet in my dreams I'd be nearer, my God, to thee;
nearer, my God, to thee, nearer to thee!

There let the way appear, steps unto heaven;
all that thou sendest me, in mercy given;
angels to beckon me nearer, my God, to thee;
nearer, my God, to thee, nearer to thee!

JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION

+ Hildako guztien alde eskaini dugun sakramentu honen bidez, zabaldu, Jauna, hildako gure anai-arreba guziei betiko pake eta argira daramaten duten zure etxeko ateak.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

R/. Amen.

+ Grant we pray, O Lord, that your departed servants, for whom we have celebrated this paschal Sacrament, may pass over to a dwelling place of light and peace. Through Christ our Lord.

R/. Amen.

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

† **Jauna zuekin.**

☉ Eta zure espirituarekin.

† **Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak:**

Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak.

☉ Amen.

† **Zoazte Jaunaren bakean. Alleluia, Alleluia**

☉ Eskerrak Jainkoari. Alleluia, Alleluia.

† The Lord be with you.

☉ **And with your spirit.**

† May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit.

☉ **Amen.**

† Go forth, the Mass is ended. Alleluia, Alleluia.

☉ **Thanks be to God. Alleluia, Alleluia.**

Ama maite, Maria,
Eguiguzu lagun,
Zure bitartez Jesus
ikusi dezagun.
Aingeruzko liriyo estimagarrija
Usai gorazko telak
Zerutik yeichia,
Gorde nazazu,
Ama Guztiz maitatua,
Ez dezadan zikindu
Birtute garbia."



Egun on bat opa dizuet
☺ wish you a wonderful day



URTEKO HOGETAHAMAIAKAGARREN IGANDEA C

Hil guztien Igandea

Lehen irakurgaia

Zuhurtzia 3:1-9

1 Zintzoen bizitza Jainkoaren eskuetan dago, ez ditu neholako oinazek harrapatuko.
2 Zentzugabeen ustez, hilak dira behin betiko: horiek hemendik joaitea zorigaitza dela daukate
3 eta gureganik urruntzea suntsitze osoa; baina zintzoak bakean daude. **4** Jendeen ustez, zigorra jasan dute, baina heiek ezilkortasuna espero zuten bete-betean. **5** Pixka bat zigortuak izan ondoan, sari handia ukanen dute gero; Jainkoak frogatan ezarri ditu eta beretzat gai aurkitu.
6 Urrea arragoan bezala garbitu ditu, eta erre-oparia bezala onartu. **7** Konduen emaiteko garaian distiratu dute, lastoan arin zabaltzen den pindarra bezala izanen dira. **8** Nazioak gobernatuko dituzte, herriak menperatuko, eta Jauna ukanen dute errege betiko. **9** Fidantzia Jainkoaren baitan dutenek egia konprenituko dute, leial izan zaizkionak harekin bat egonen dira maitasunean; zeren baitu onginala eta urrikalmendu bere fededunentzat eta axola bere hautetsientzat.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Salmoa 23 (22):1-3a, 3b-4, 5, 6

Leloa: Jauna dut artzain: ez naiz deuseren beharretan.

Jauna dut artzain: ez naiz deuseren beharretan.
Atsedean emaiten daut pentze gizenetan,
iturri lasaietarat eremaiten,
eta indarrak berritzen;

Bide onetik nerama, leiala baita .
Iraganik ere ibar beltzetarik,
ez dut gaitzaren beldurrik,
zu nerekin baitzira:
zure artzain-makila dut geriza.

Mahaia prestatzen dautazu aitzinean,
nere etsaien muturrean;
usain gozoa ixurtzen dautazu burura;
kopa dut bete-betea.

Bai, zoriona eta maitasuna ditut aldean
nere bizi guziko egunetan;
Jaunaren etxean naiz biziko
nere egunek dirauteno

Bigarren irakurgaia

Jondoni Paulok Erromatarrerri 6:3-9

3 Haurrideok: Ez ote dakizue bataioaz Jesu Kristori lotuak izan girenak, haren heriotzeari izan girela lotuak? **4** Bataioaren bidez harekin ehortziak izan girenak, haren heriotzeari lotuak gira, Aitaren ahalaz Kristo hiletarik piztu den bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun. **5** Harena bezalako heriotzean harekin bat egin bagira, harekin bat egingen gira harena bezalako piztean ere. **6** Badakigu, lehen ginen jende hura Kristorekin gurutzean ezarria izan da, bekatuzko jende hura suntsitua izan zadin, eta bekatuaren esklabo izan ez gintezen gehiago. **7** Ezen hila dena, bekatutik libratua da. **8** Kristorekin hil bagira, harekin biziko ere girela sinesten dugu. **9** Badakigu: Kristo behin hiletarik piztuz geroz, ez da berriz hilen; herioak ez du gehiago haren gain ahalik.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

Zatozte, nere Aitak benedikatuak; ondoretasunez ukan zazue munduaren hastetik zuentzat prestaturik dagon erresuma.

Jesu Kristoren Ebanjelioa Jondoni Jonen liburutik 6:37-40

Orduan Jesus jendaldeari mintzatu zitzaion: **37** Aitak emaiten dauzkitan guziak etorriko zaizkit eta etortzen zaitana ez dut neholaz ere kanporat botako, **38** ez bainaiz zerutik jautsi neure nahia egiteko, baizik igorri nauenaren nahia. **39** Eta huna igorri nauenaren nahia: harek eman dauzkitan guzietarik bat ere gal ez dezatan, baizik pitz ditzatan azken egunean. **40** Bai, huna nere Aitak nahi duena: semea ikusi eta haren baitan sinesten duenak betiereko bizia ukan dezan; eta nik piztuko dut azken egunean.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.